

A Stunning

# Coastline

BILBAO BIZKAIA be basque

## Bizkaiko kostaldea

# Itsasoko nortasunaren ikur paregabea

- Itsasoko hiribildu eta herriak
- Urdaibai, ondare historiko eta naturala
- Flyscha, kostalde aparta eta zirraragarria
- Jairik dibertigarrienak
- Gastronomia "kostarik kosta"

Turismo jasangarriago eta arduratsuagoaren alde

OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE

# BILBAO BIZKAIA

## A Stunning Coast line


Hunkitu
## BISITATZEN
6



- Gaztelugatxe
- Urdaibai, Biosferaren Erreserba
- Gernika, gure historiaren bihotza
- Itsasoko hiribildu eta herriak
- Bizkaiko flyscha, kostalde aparta eta zirraragarria

Liluratu
## PASEATZEN
20



- Burdinazko paisaiak
- Itsaslabarrak, talaiak, kalak eta hondartzak
- Itsasargiak
- Santurtzitik Bilbora

Harritu
## IKUSTEN
32



- Jairik dibertigarrienak
- Tradizioak, gure nortasunaren ikur

Gozatu
## PRAKTIKATZEN
36



- Surfa
- Zetazeoak ikustea
- Birding
- Mendi-ibiliak
- Bizikleta-ibiliak

Ondo pasatu
## EROSTEN
40

0 km




- Itsasoko fruituen kontserbak
- Txakolina. Kostaldeko ardoa

Plazera hartu
## JATEN
44

- Mokadu zoragarriak itsasertzean
- Pintxoak, itsasoko mokaduak
- Itsasoko jaki tipikoak



## ESPERIENTZIAK SAREAN
48 Erreserbatu zure esperientzia

## TOP BIZKAIA KOSTA
50 Egin beharrekoak

## BIZKAIA COAST MAP
52 Eta bere interes-puntuak

## BIDAIA JASANGARRIAGO ETA ARDURATSUAGO BATEN ALDE & INFO PRAKTIKOA
54


BBCARD

Txartel honekin dirua aurreztuko duzu eta errazagoa izango da Bilbao Bizkaiko egonaldia planifikatzea, bai, garraio publikoan, bai museoetarako, ikuskizunetarako eta abarrerako sarreretan, dendetan eta aisialdiko bestelako espazioetan. Eskatu Bilbao Turismoko bulegoetan edo webgune honetan:

www.bilbaobizkaiacard.com

Erreserbatu BILBAO BIZKAIA eus

reservabilbaobizkaia.eus/eu


**Edizioa:** Martxoa, 2023. Bosgarren edizioa

**Argitaratzailea:** Bilbao Ekintza tokiko enpresa-erakunde publikoa

**Egilea eta edukiak:** Bell Comunicación

**Argazkiak:** Bilbo Turismoa, Bizkaia Turismoa, Basquetour, Hazi, Bell, Gonzalo Azumendi, Pedro Muñoz, Quintas Fotógrafos, Gemma Arrugaeta, Mitxi, Martín Fotógrafo, CC by-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/ Mikel Arrazola

**Inprimaketa:** GRAFILUR / D.L. BI 00016-2023

# A Stunning Coast line



# Kostarik kosta

Bizkaiko kostaldeak, Ondarroatik Muskizera doazen150 kilometroetan, aukera erakargarri ugari eskaintzen ditu: **bisitatu** itsasoko herrixka ederrak, **paseatu** Kantauri itsaso ikaragarriaren ertzetatik, **parte hartu** debozioz bizi diren tradizioetan, **praktikatu** era guztietako kirolak, **erosi** eta **dastatu** jatekorik gozoenak, kostalde atsegin honetako tipikoak... Itsasoarekin zuzenean lotutako esperientzia aparteko hauei esker, zure bidaia gogoangarria izango da.

Plentziako badia



# GAZTELUGATXE

## *241 eskailera-maila zerurantz*

*Ahaleginak merezi du. Kostalde zakar honetako paisaiarik zirraragarrienetako bat ikusiko duzu.*

## Natura Biotopo Babestua

*Uharte hau lurrarekin lotuta dago, bi arku handiz osatutako istmo baten bidez. Gaztelugatxe oso errotuta dago arrantzaleen artean. Izan ere, bere izena daraman ermitaren barruan, itsasotik salbatutako marinelen eskaintzak, itsasontzien maketak eta hondoratzear dauden ontzien koadroak daude. Kondairaren arabera, Bermeora iristean, San Joanek hiru urrats handi eman zituen ermitara ailegatu baino lehen... azken urratsa azken eskailera-mailan. Egin aurre nagiari eta igo eskailerak, paraje honen ikusgarritasuna bisitatzeko modukoa da eta.*



NOLA BISITATU

***Oinez***

***Itsasotik*** *(ikusi egin daiteke, baina ez sartu)*

***Garraio publikoa***

***Aparkalekua***

***Gogoan izan biotopo babestua dela eta, beraz, aforoa kontrolatzen duela. Horregatik, beharrezkoa da aldez aurretik erreserbatzea.***

***Errespetatu ingurunea eta erabili oinetako egokiak.***

***Ibilbide gogorra da; ez da egokia desgaitasuna, arnasketa-arazoak edo bihotzeko arazoak dituzten pertsonentzat eta ezin da umeen aulkiekin egin.***

HEMENDIK HURBIL

## Matxitxakoko itsasargia



**Bermeon,** XIX. mendeko lehen egitura (gaur egun ez da erabiltzen) eta XX. mendeko egitura (egun erabiltzen dena) dituen itsasargi hau ikusi ahalko duzu.

## Akatz eta Izaro irlak




Matxitxakoko lurmuturraren inguruan, **Gaztelugatxez gain**, **Akatz** eta Izaro irlak daude. Azken horretan lehen frantziskotarren komentu bat egon zen. Irla hori da, era berean, Izaro Films zinema-ekoiztetxe ospetsuari izena eman ziona. Bi irletan daude interes handiko itsas hegaztien koloniak.



UNESCO

# URDAIBAI

## Biosferaren Erreserba Naturala



*Urdaibaiko estuarioa Oka ibaiaren ahoan eratutako eremu naturala da. Bere aberastasun ekologiko handiari esker, Unescok Biosferaren Erreserba kalifikatu zuen eta Natura Sarearen parte da. Hegazti migratzaileen atseden-eremu garrantzitsua da, Urdaibai Bird Center-etik ikusi ahalko duzun bezala.*

*Paisaian aniztasuna gailentzen da: itsasoa, altuera urriko mendia, hareatzak eta itsasbeheran sortzen diren padurak, eta, nola ez, Laga edo Laida bezalako hondartza eder eta zoragarriak edo Antzoras, Lapatza edo Aritzatxu bezalako kala txikiak.*

***www.turismourdaibai.com***

*Natura Espazio Babestuetako Turismo Jasangarriko Gutun Europarra EUROPARC Federazioaren ekimen bat da. Hala, turismoaren garapena sustatzeko helburua dauka, jasangarritasunaren arabera, Europako natura-espazio babestuetan. Bisitatzen gaituzunean, egin ahalegina Urdaibaiko zure egonaldiak eragin positiboa izan dezan ingurumenean, gizartean eta ekonomian, oro har.*

NOLA BISITATU

## Gernikatik Bermeora

### Trenean edo begiratokiak gozatuz

Eser zaitez eskuineko leihoaren ondoan, **Bermeo** norabidean bazoaz, eta hartu prismatikoak. Paisaia ikaragarria aurkituko duzu **Gernika-Lumo** eta **Mundaka** artean: lezkadiak, padurak, itsasbeheran agertzen den lohia, Oka ibaiaren meandroak...





... eta, zeruan, hegazti mordoa: basahateak, ahate mokozabalak, txilinportak, koartza hauskarak, arrano arrantzaleak nahiz Eskandinaviako antzarak, klima hobearen bila guganaino etorriak.

### edo itsasontziz

Eta itsasotik bertatik ikusi nahi baduzu parajea, itsasontzi bat hartu dezakezu paisaia beste ikuspegi batetik miresteko.



Informazio gehiago hemen:
**www.turismourdaibai.com**

# Urdaibai ingurua, ondare historiko eta naturala



## Mundakako olatua

Mundakako **olatua** dagoeneko rider onenen artera iritsi da, Europako ezkerreko olaturik onena dela uste baita. Olatu ospetsu hau gai da 400 metro arteko hodiak sortzeko.



## Omako basoa

Nahiz eta gaur egun **berreraikitze-lanetan dagoen**, inguru natural batean egindako esku-hartze artistiko hau ikur garrantzitsu bilakatu da. (Errekuperazio-prozesua kontsultatzeko: bizkaikoa.bizkaia.eus)



## Ogoñoko begiratokia

Talaiako ibilbidean aldapa handiak, bidezidorrak eta zulo harritsuak aurkituko ditugu, Ogoñoko begiratokiaz gain. Bertatik, Kantauri Itsasoko ikuspegirik ederrenetako bat miretsi daiteke.



## Sandindere eta Txatxarramendi irlak

**Busturia** udalerrian daude, kostaldetik oso hurbil; hain hurbil ezen itsasbeheran posible baita irletara oinez iristea.

Txatxarramendik senadi babestu bat sortzen du, ontziak amarratzeko erraztasunak emanez.



## Santimamiñe

**Kortezubin** dagoen koba hau Gizadiaren Ondare aitortu zuten 2008an. Bertan, Goi Paleolitikoko (Madeleine aldia) data duten horma-pinturak eta hondarrak aurkitu dira. Bizkaiko aztarnategi arkeologiko garrantzitsuena da.








## Ekoetxea Urdaibai - Madariaga dorrea

Urdaibaiko natura ikaragarria ezagutzea nahitaezkoa denez, aprobetxatu **Madariaga Dorrea** bisitatzeko, **Busturian**, eta **Euskadiko Bioaniztasun Zentroak antolatzen duen ibilbidea egiteko, gidatuta, oinez edo itsasontziz.**

Bioaniztasunaren ezagutzari buruzko partaidetza-arlo bat ere badago eta, dorrera igotzen bazara, **Izaro Irla**, **Laida** hondartza edo padura bezalako ikuspegi zoragarriez gozatu ahalko duzu.

**www.ekoetxea.eus**

A GOOD IDEA!

## Urdaibai Bird Center

Hegaztiak ikustera animatzen bazara, oso gomendagarria da **Urdaibai Bird Center, Gautegiz- Arteagan**. Ikerketa eta dibulgazioko zentro honek hegaztiak eta beren habitatak aztertzen ditu, fauna eta, oro har, natura babesteko modurik onena deskubritzeko. Zentro honetako behatokian urtero Urdaibaitik pasatzen diren 200 espezie baino gehiagoren urratsak jarraitu ditzakezu.

**www.birdcenter.org**



Bakearen Museoa



Gernikako Batzar Etxea



Europako Herrien Parkea



Gernikako azoka

## Bakearen Museoa, Batzar Etxea, Euskal Herria Museoa eta Europako Herrien Parkea

Bizkaiaren eta euskaldunen ikurra den udalerri bat badago, dudarik gabe, **Gernika-Lumo**da. Bere historia, tamalez, kaltetua izan zen 1937ko apirileko bonbardaketan, Gerra Zibilean, eta pasarte hori oinarri hartuz sortu da herri indartsua, nortasuna duena, eta bakearentzako eta askatasunarentzako eredugarria dena.

Gernikako **Batzar Etxean Bizkaiko** Batzar Nagusiak egiten dira **eta, horrez gain, Bakearen Museoa** eta **Euskal Herria Museoa**, **Santa Maria eliza** eta **Europako Herrien Parkea** daude (azken horretan Chillidaren eta Henry Mooren eskulturak daudelarik). Horiek guztiek ondare historiko eta artistiko ederra osatzen dute, bisitatu beharrekoa.

Astelehenero egiten den **azokak** ospe handia dauka, batez ere urriko azken astelehenean egiten denak. Bertan, aurrez aurre ikusi ahalko dituzu Euskadin nekazari eta abeltzainek maitasun osoz eta, beraz, kalitate handienez lantzen dituzten produktuak. Baietz zerbait erosi!

**Jai Alai** bisitatzea ere ideia aparta da. Zesta-puntako frontoi mitiko hau bakarra da. Bertan, frontisa, errebotea eta harrizko lurzorua aurkituko dituzu. Euskal pilotako modalitate honetan zumez eta gaztainondo-egurrez egindako otzara batekin jaurtitzen da pilota, 300 kilometro orduko abiaduraraino iritsiz.



# GERNIKA

## *Gure historiaren bihotza*

Gernikako Batzar Etxea




# ITSASOKO HIRIBILDU ETA HERRIAK

## Postalak bertatik bertara

***Bizkaiko kostaldean bisitatzeko modukoak dira, era berean, arrantzale-herriak. Marinelak nagusi diren herri horietan postaletako tradizioa aurrez aurre ikusteko eta gastronomia bikain eta paregabea dastatzeko aukera izango duzu.***

Lekeitio



A GOOD IDEA!

### Herri kutunak, itsas estanpa paregabeak

Kostaldeko herri bakoitzak bere berezitasunak ditu, herri bakoitza bakar bihurtzen dutenak. Hala, itsas estanpaz eta gatz eta arrantza usainez betetako ibilbide eder bat egiteko aukera ematen digute.



Ondarroa

**Portugalete** batez ere Bizkaia Zubiagatik da ezaguna. Beti egon izan da bere arrantza-tradizioetan errotuta.

**Ondarroa** Kantauri itsasoko ertzean arrain gehien batzen dituen portuetako bat da. Biztanleetako asko dira marinelak eta euskaldunak. Halaber, kontserba-enpresek industria-sare garrantzitsua osatzen dute (enpresa horietako batzuek izen handia dute). Ahal baduzue, erreserbatu bisita bat arrain-lonjan, gaur egun arrantza-jarduera nola garatzen den bertatik bertara ikusteko.

**Lekeitio** nabarmena da, interes turistikoagatik ez ezik, portuaren inguruan paseo zoragarri bat duelako. Portuan, arrantzontzien lana eta eskaintza gastronomiko aparta uztartzen dira.

**Elantxobe** herri txiki bat da eta, bertan, itsasorako erorketa izugarria denez, ikaragarrizko ikuspegiaz gozatzeko aukera dago.

**Mundakan**, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban, ezkerreko olatu ospetsua ikus dezakegu. Surfaren jarraitzaile guztien esanetan, Europako onena eta munduko onenetakoa da.



Bermeo

**Bermeo** arrantza-portuetan garrantzitsuena da. Bertan, Arrantzaleen Museoa bisitatu dezakegu, Ertzilla Dorrean, edo erosketak egin kontserba-lantegietan.

Itsasoko kutsu hori duten eta bisitatzeko modukoak diren beste leku batzuk ere badaude, besteak beste **Armintza**, **Ea**, **Plentzia**, **Getxo**, **Santurtzi**, **Zierbena**...

A Stunning Coast line

*Hunkitu*
# BISITATZEN

BILBAO BIZKAIA

## *Alderik alde* KOSTALDEA


Zierbena

## ZIERBENA

**Zierbena.** Itsasoko jatetxeak eta hondartza ospetsua (Arena), Muskizeraino iristen dena.


Santurtzi

## SANTURTZI

**Santurtzi.** Arrantza-jarduera biziari esker, portua ospetsua da. Herritarrek beti dute itsasoa erreferentzia moduan.


Portugalete

## PORTUGALETE

**Portugalete.** Kaitik ateratzen diren aldapa handiek osatzen dute alde zaharra, koloretako etxez jantzia eta Bizkaia Zubi ospetsua lagun, Portugalete eta Getxo batuz.


Getxo

## GETXO

**Getxo.** Aukera interesgarriak eskaintzen ditu: ibilaldia Galea lurmuturrean, Algortako portu zaharreko giroa, edo Punta Begoñako galeriak, eraiki zirenetik 100 urte igaro ostean berreskuratu direnak, sorkuntza, erakusketa, prestakuntza eta gozamenerako espazio moduan.


Sopela

## SOPELA

**Sopela.** Surfa praktikatzeko hondartza ezin hobea.


Barrika

## BARRIKA

**Barrika.** Itsaslabarren eta hondartza basatien herria da.


Plentzia

## PLENTZIA

**Plentzia.** Badia eder batean kokatzen da, itsasadarra bertan amaitzen delarik. Herri honetako alde zaharra, XIII. mendekoa, oso interesgarria da.


Gorliz

## GORLIZ

**Gorliz.** Kostaldeko bazter txiki bat, natura-balio handia duelako nabarmena. Bertan, ibilaldi lasai eta argitsuak egin daitezke.


Armintza

## ARMINTZA

**Armintza (Lemoiz).** Orain bizilekurako herri gisa ezagutzen dugun arren, lehen arrantza- eta kontserba-industria oso indartsua zuen eta Bizkaiko kostaldeko defentsa gogorra izan zen.


Bakio

## BAKIO

**Bakio.** Itsaslabarrak, hondartzak eta mendiak ageri dira kostalde ospetsuko bazter garrantzitsu honetan. Horrez gain, txakolin-bodegek izen handia dute.


Bermeo

## BERMEO

**Bermeo.** Bizkaiko alde zaharrik handiena eta Tala gailentzen dira. Azken horretatik, badiaren ikuspegi zoragarriez gozatu daiteke. Gainera, baleekin lotutako iraganaren berri ematen duen 60 metroko horma bat ere badago.


Mundaka

## MUNDAKA

**Mundaka.** Izena ematen dion itsasadarraren ahoan dagoen udalerri lasai honek bisita ugari jasotzen ditu, batez ere munduko surflari guztien artean "ezkerreko olatuagatik" ezagun bihurtzen hasi zenetik.


Gernika

## GERNIKA

**Gernika.** Herri historiko hau ospetsua da nazioartean, 1937an Espainiako Gerra Zibilean bonbardaketa zorigaiztokoa jasan zuelako eta Euskal Herriaren eta demokraziaren ikurra delako.


Elantxobe

## ELANTXOBE

**Elantxobe.** Herri txikia, lehen arrantza-portua zuen arren orain kirol-portua duena. Herriko kale estu eta aldapatsuek itsasora begiratzen dute. Bertan, etxeek itsasertzera doan teilatuzko eskailera antzeko bat osatzen dute.


Ea

## EA

**Ea.** Xarma berezia duen herri txikia da. Itsasadarrak eta itsas eraikuntza txikiek egituratzen dute. Harribitxi txiki hau bisitatzea benetan gomendagarria da.


Lekeitio

## LEKEITIO

**Lekeitio.** Portu erakargarriaz gain, Jasokundearen Andre Mariaren erretaula oso interesgarria da. XVI: mendearen hasierakoa da, eta penintsulan tamaina handieneko hirugarren erretaula gotiko zizelkatua da. Erretaularen erdian, XIV. mendeko Andra Maria agertzen da.


Ondarroa

## ONDARROA

**Ondarroa.** Zubi zaharrak, Arrantzaleen Kofradia zaharrak eta Andre Maria elizak jauntasuna ematen diote portu zaharrari. Gaur egun, harrapaketa ugari dituenez, altuerako arrantza-portu garrantzitsuenetakoa da.

# BIZKAIKO FLYSCHA

## Kostalde aparta eta zirraragarria

A GOOD IDEA!

*Hartu argazki-kamera eta itxaron itsasbeherari... Barrikan bazaude, zur eta lur geratuko zara begien aurrean deskubrituko duzun altxor naturalarekin. Formazio geologiko honetan animalia eta landare espezie ugari aurkituko dituzu: marearteko zabalgunea da.*

*Edertasun handiko fenomeno natural harrigarri bat da. Beraz, errespetatu eta zaindu egin behar da, aparteko balioa mantentzeko.*

Flyscha Barrikan

**Bizkaiko flyschen** ibilbidea Getxo, Sopela, Barrika, Gorliz, Lemoiz eta Bakiotik pasatzen da. Hala, balio geologiko aparteko fenomeno bitxiak ikusteko aukera ematen digu. Sopelatik sarrera duten hondartzetan K/T muga ikus daiteke, dinosauroen desagerpenak markatzen duena. Itsaslabarretara irteera aseguratuak egiten dituzten bisita gidatuen programa bat dago urtean 6 hilabetez.

Badago beste fenomeno garrantzitsu bat ere: **Astondoko dunak**, Gorlizen. Hareazko formazio honek gorantz egiten du itsasoaren eta iparraldeko haizeen zioz. Leku honen balioa areagotu egin da, duna fosil ugari aurkitzean: 6.000 urtetik gorako harkaitzak, harez trinkotuta.

**www.flyschbizkaia.eus**


Sopela

A GOOD IDEA!

## Itsasotik begira

Bizkaiko kostaldea eta Bizkaiko flyscha bisitatzeko modu desberdin eta abenturazale bat probatu nahi baduzu, itsasontzia aukeratu.



Hainbat konpainiak eskaintzen dituzte zerbitzu hauek. Beraz, ez egin zalantzarik eta murgildu itsasoan!



# BURDINAZKO PAISAIAK

A GOOD IDEA!

## Eman paseo bat goitik

*Bizkaia Zubiko goiko pasabidera igotzen bazara (45 metroko altueran), itsasadarraren ahoaren ikuspegi paregabea edukiko duzu.*

*Eraiki zen garai industrialaren lekuko (XIX. mendearen amaieran), Bizkaia Zubia itsasadarraren ahoaren amaieran dago, Portugalete eta Areeta (Getxo) batuz. Eiffel dorrean inspiratutako eraikuntza dauka, hain zuzen ere burgesia berriaren beharren eta garaiko turista berrien ondorioz: bi itsasertzetan zeuden bainu-etxeen bisitariak. 2006an, Gizadiaren Ondare aitortu zuen UNESCOk.*

*www.puente-colgante.com*





## Itsaslurreko Bide Berdea eta Punta Lucero


Itsaslurreko Bide Berdea

Hona hemen bi ibilaldi ikaragarri.
**Itsaslurreko Bide Berdeak,** itsaslabarren gainean eskegita, lehen Kobaronetik Campomar-era zihoan trenbide zaharra zeharkatzen du. Hala, inguru honen iragan meatzaria deskubritu eta bertako fauna eta florari buruzko informazioa biltzeko aukera izango duzu.

**Punta Lucero** (307 m.) mendiko gailurra pribilegiatua da, Kantauri itsasora jotzen duten parajeen zioz. Tunel eta arroilaz betetako ibilbide baten ostean iristen da gora.



## Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa Berangon

Burdin Hesia Espainiako Gerra Zibilean Bilbo eta inguruak babesteko altxatu zen defentsa-lerro handi bat zen. Gaur egun, Berangon dagoen Oroimenaren Museoan gogoratzen dute.

## Santurtziko Serantes mendia

Aparta da oinezko ibilaldiak egiteko eta naturaz eta bistez gozatzeko, Abrara jotzen duen begiratoki natural honetatik.

## Rialia, Industriaren Museoa

Rialiak (Portugalete) bere oroimenean gorde nahi ditu behinola burdinaren industria garrantzitsuan lan egin zutenak. Halaber, itsasadarra aberastasun-ardatz nagusi gisa aldarrikatzen du, ikuspegi historiko, etnografiko eta artistikotik.

## Pobaleko burdinola

Burdina landu eta metal bihurtzeko lan egiten zuen lantegi hidraulikoa. Museo honetan, industria-aroaren aurretik Bizkaian garrantzitsuenak ziren bi jarduera aurrez aurre ikusteko aukera dugu: burdingintza eta errotagintza.



# IKUSPEGIA lurretik

## Itsaslabarrak

*Bizkaiko itsasertzetik proposatzen dizugun ibilbide honi esker, itsaslabarren segidak Kantauri itsasoaren ikuspegi zoragarria emango dizu. Itsaslabarretako batzuk oso ederrak dira, besteak beste Kobaron (Muskiz), Galea edo Azkorri (Getxo), Sopela, Barrika, Bakio edo Lekeitiokoak.*

Azkorriko itsaslabarrak





Hemen, itsasoaz urte osoan gozatzea gustatzen zaigu. Eguzki egunetan bainatzea gustatzen zaigu, baina harea gainean oinez ibiltzea edo alderik altu eta harritsuenetan murgiltzea ere gogoko dugu, betiere zerumugara begira.

Horregatik, Bizkaiko itsasertzetik doan ibilaldi hau proposatzen dizugu. Itsaslabarrak, talaiak, kalak eta hondartzak Kantauri itsasoaren lekuko aparta bihurtuko dira, ur zakar eta kosta malkartsu baina izugarri eder honetaz gozatzeko.

## Talaiak

Begiratoki natural ikaragarri hauek erabiltzen zituzten antzina arrantzaleek baleak ikusteko puntu estrategiko moduan. Ezagunak dira, besteak beste, Tala (Bermeo), Mundaka, San Pedro de Atxarre (Ibarrangelu), Ogoño (Elantxobe), Elantxobe, Ea eta Lekeitioko itsasargiaren ondokoa.

Armintzatik Matxitxakora errepidetik doan ibilbidea benetan interesgarria da, Gaztelugatxera jotzen duten begiratokiz betea.



Ogoñoko talaia

**A GOOD IDEA!**

*Nahiz eta Bizkaiko kostalderako bisita uda sasoitik kanpo egin, ez galdu aukera kostaldeko herrietako edozein bistatu eta bere ilunabar, bista eta giroaz gozatzeko.*





## Kalak

*Hondartza edo kala ezkutu baina xarmagarriak nahi badituzu, gogoan hartu izen hauek: Muriola (Barrika), Kontrabandistena (Gorliz), Marabo eta Armintza (Lemoiz) Senaia (Bakio), Antzoras (Ibarrangelu), Lapatza (Ea), Bainerea (Lekeitio), Endai (Mendexa), Arrikotartian edo Moko (Berriatua).*

Muriolako kala

A Stunning Coast line

Liluratu

PASEATZEN

*Zatozenean zatozela, Bizkaiko kostaldeko hondartzak beti dira interesgarriak. Udan eguzkitsu, udaberrian lasaigarri, udazkeneko ilunabarretan suabe eta neguan zakar. Gainera, edertasun ikaragarria dute. Hortik beren izen ona.*



# Hemen HONDARTZAK urte osoan gozatzen dira

Isuntzako hondartza (Lekeitio)

*Bizkaian era guztietako hondartzak dituzu: herrikoak, esaterako **Gorliz** eta **Plentzia**, **Isuntza** Lekeition, **Karraspio** Mendexan edo **Laidatxu** Mundakan. Oso ezagunak dira, era berean **Ereaga** eta **Arrigunaga** Getxon eta **Arena** Muskizen, edo **Ea** eta **Arrigorri** Ondarroan. Itsasbeheran sortzen dituen dimentsioek eta bere inguruaren edertasunak (Urdaibaiko Erreserba) paregabe bihurtze dute **Laida**, Ibarrangelun.*

*Giro gaztearen bila ari bazara, edo surf edo kayak egin nahi baduzu, **Bakio** edo **Gorrondatxe/Azkorri**, **Arriatera** (Sopela), Laida edo Laga (Ibarrangelu) edo **Barinatxe** (Getxo eta Sopela artean) aukera ezin hobeak dira.*

*Armintza bakartia edo Ogeia hondartza (Ispaster) edertasun handiko bazterrak dira.*

Sopela








**Arena** P WC ISO 14001 ISO 9001
MUSKIZ-ZIERBENA

**Zierbena** P ISO 14001 ISO 9001
ZIERBENA

**Areeta** P WC
GETXO

**Ereaga** P WC
GETXO

**Arrigunaga** P WC
GETXO

**Gorrondatxe/Azkorri** P WC
GETXO

**Barinatxe** P WC
GETXO – SOPELA

**Arriatera-Atxabiribil** P WC
SOPELA

**Meñakotz** P WC
BARRIKA/SOPELA

**Barrika** P
BARRIKA

**Muriola** P
BARRIKA

**Plentzia** P WC
PLENTZIA

**Gorliz** P WC ISO 14001 ISO 9001
GORLIZ

**Armintza** P
LEMOIZ

**Bakio** P WC ISO 14001 ISO 9001
BAKIO

**Aritxatxu** WC
BERMEO

**Laidatxu** P WC
MUNDAKA

**Toña** P WC
SUKARRIETA

**San Antonio** P WC
SUKARRIETA

**Kanala** P WC
GAUTEGIZ - ARTEAGA

**Laida** P WC ISO 14001 ISO 9001
IBARRANGELUA

**Laga** P WC ISO 14001 ISO 9001
IBARRANGELUA

**Ea** P WC
EA

**Ogeia** P WC ISO 14001 ISO 9001
ISPASTER

**Isuntza** P WC ISO 14001 ISO 9001
LEKEITIO

**Karraspio** P WC ISO 14001 ISO 9001
MENDEXA

**Arrigorri** P WC ISO 14001 ISO 9001
ONDARROA

*Zaindu zure ingurua eta mantendu hondartzak garbi eta hondakinik gabe*



# ITSASARGIAK zaindari leialak



Santa Katalinako itsasargia



Arriluze (Getxo)



Gorliz (Billano lurmuturra)



Galea lurmuturra (Getxo)



Matxitxako (Urdaibai)




## Gure itsas nortasunaren zelatariak

*Gure kostaldean zehar bidaiatzen ari bazara, itsasargiak bisitatzea gomendatzen dizugu, erromantizismoa eta ekaitzak nahasten dituzten zaindariak.*

*Santa Katalinako itsasargia, Lekeition, bisitatu daitekeen bakarra da, baina gainera, nabigazio-teknikaren interpretazio-zentroa ere bada. Bere bitarteko teknologikoen bidez, nabigazioaren oinarrizko jakintza eskuratuko duzu, antzinatasunetatik bertatik, eta ezagutza hori praktikan jarri, Elantxobetik Lekeitiorako bidaia birtual batean. Itsas seinaleak ikasteko aukeraz gain, terrazatik ilunabar izugarria ikusi ahal izango duzu.*



# SANTURTZITIK BILBORA

*Halaxe dio kanta ezagunak, eta Itsasadarrak osatzen duen bizkarrezurrari izenburua eman diezaioke, Bilbo itsasora zabaltzen diren herriekin batzen baitu.*

*Gainera, metroko sarea ere badago, hurbilen dauden hondartzetara joateko.*

***www.metrobilbao.eus***

Santurtzi Itsas Museoa





Bilbori buruz hitz egitea **Itsasadarrari** buruz hitz egitea da. Hasiera-hasieratik, hiriak lotura handia izan du itsasadarrarekin. Hiriko ezkutuan ere agertzen da, **San Anton Zubia** gainean duela. Itsasadarraren ertzean dago **Alde Zaharra**, 700 urte baino gehiago dituena. Bertan daude, besteak beste, bere **Zazpi Kaleak**, **Santiago Katedrala**, **Plaza Berria**, **Areatza**... Itsasadarra Euskadiko motor ekonomikoetako bat da, bere egoera estrategikoaren eta nabigagarritasunaren zioz. Gaur egun, hiria eta lurraldea eraldatzen ari diren honetan, protagonismoa izaten jarraitzen du. Halaber, guztiz berritu den hirigintza berriaren eta arkitektura abangoardistaren artean lotura-lana egiten du, ibilaldiak egiteko nahiz kirola praktikatzeko aukera eskainiz. Mundu guztiarentzat zerbait eskaintzeko duen lekua da.

Plentzia






# ITSASADARRA

## BILBOKO BIZKARREZURRA

A Stunning Coast line

*Liluratu*

PASEATZEN




*Bilboko Guggenheim Museoa da, zalantzarik gabe, Bilboren fisonomia baldintzatu duen ikurretako bat.*

*Handia eta dotorea da, Itsasadarra zeharkatzen ari den titaniozko ontzi erraldoi baten itxura hartuz.*

*Hirira egiten den edozein bisitatan ikusi beharrekoa da, bai bere erakusketa aldi baterako eta egonkorrengatik, bai bere arkitekturagatik eta inguruan duen arteagatik.*

# GUGGENHEIM Bilbao Museoa

## *itsasadarra agurtzen*

Itsasadarra, Guggenheim Bilbao Museotik pasatzean



# IBILIAK ITSASONTZIZ GUSTU GUZTIETARAKO

Bilboko bizkarrezurra ezagutzeko itsasadarra itsasontziz zeharkatzea edo itsasoan murgiltzea ideia bikaina da, zalantzarik gabe.

## ITSASADARREAN BARRENA

**BILBOATS.** Eguneroko ibilaldiak. www.bilboats.com

**BILBAO AT SHIP.** Ibilaldiak luxuzko ontzietan. www.bilbaoenbarco.es

**EL BOTE TOURS.** www.elbotebilbao.com

A GOOD IDEA!




## ITSASOAN BARRENA

**HEGALUZE.** Ibilaldiak itsasontziz euskal kostaldean barrena (Bermeo, Gaztelugatxe, Bilbo...) www.hegaluze.com

**OLATU.** Ibilaldiak itsasontziz Izaro, Ogoño, Elantxobe, Lekeitio, Armintza, Gaztelugatxe, Akatx, Matxitxako eta Urdaibaiko Itsasadarrean. www.olatu.net

**KARRASPIO ITSAS TURISMOA.** Itsas turismoa, abentura eta esperientziak. www.karraspio.es

**SANTURTZIKO BALEAK.** www.verballenas.com

**IZKIRA URDAIBAI** (Mundaka) Mundaka-Sukarrieta-Laida arteko itsas garraioa. Paseo turistikoak itsasontziz. https://turismourdaibai.com/eu/ur-eta-kirol-jarduerak/

**URDAIBAI ON** (Mundaka), Paseo turistiko-kulturalak itsasontziz https://turismourdaibai.com/eu/ur-eta-kirol-jarduerak/

**URDAIBAI BOAT** (Mundaka), Mundaka-Sukarrieta-Laida arteko itsas garraioa. Paseo turistikoak itsasontziz. https://turismourdaibai.com/eu/ur-eta-kirol-jarduerak/

**TAHO BOAT** (Mundaka), Itsasontzien alokairua, titulazioarekin edo gabe, paseo turistikoak eta arrantza-irteerak. https://turismourdaibai.com/eu/ur-eta-kirol-jarduerak/

**BAY OF BISCAY SAILING** (Bermeo) Paseoak katamaranez. https://turismourdaibai.com/eu/ur-eta-kirol-jarduerak/




# ITSASMUSEUM

Bilbao Bizkaiak eta bertako jendeak itsasoarekin izan duten harreman estuari esker, nortasun eta tradizio propioak finkatu dira, museo batean jasotzea merezi dutenak.

**Itsasmuseumak** bere erakusketa-espazioetan eta programazioan jasotzen du itsas kulturaren kontakizuna.

Leku dinamiko, hurbil eta partaide honek esperientzia paregabea eskaintzen dio bisitariari Bilbao Bizkaiaren itsas munduaren iragana eta oraina nahiz ondarea deskubritzeko.






# ARKEOLOGI MUSEOA

**Arkeologi Museoak** pieza ugari eta oso interesgarriak batzen ditu, Bizkaiko historia hobeto ezagutzeko.

Itsasoaren eta kabotaje-merkataritzaren arloan Europa mailan bereziki garrantzitsua den pieza bat gordetzen du:**Urbieta ontzi-hondarra,** gure herriaren bokazio marinel eta komertzialaren erakusgarri. XV. mendeko ontzi hori 1998an aurkitu zen Gernikako itsasadarraren lohiaren eta lurraren azpian. 12 metroko luzerako eta 4 metroko zabalerako ontzi hau Kantauriko itsasertzean aurkitu den ezaugarri horietako eta garaiko bakarra da.



# JAIRIK dibertigarrienak

Elantxobe

*Kaxarranka San Pedro jaietan ospatzen da, Lekeition. Kofradiako karguak hartzeko unea izaten da. Ospakizun honen jatorria XV. mendean kokatzen da, urteko onurak jasotzeko bi diruzain aukeratzen ziren garaian. Dirua kutxa batean gordetzen zen, eta kargua uzten zuen diruzainaren etxetik kargua hartzen zuen diruzainaren etxera eramaten zen.*



Kaxarranka (Lekeitio)

## Urdinez jantzi

Kostaldeko herri askok ospatzen dituzte debozio patronalean oinarritutako jaiak, nahiz eta gerora ospakizun paganoago bihurtu diren. Horren adibide da **“Madalena”** jaia, Bermeo, Elantxobe, Plentzia edo Mundakan ospatzen dena, leku bakoitzean bere erara, baina ia guztietan itsasoko urarekin.

Bermeon, esaterako, ontziak Izaroko irlara joaten dira. Bertan, alkateak teila bat botatzen du itsasora, herriko teilatuetako itoginak bertaraino iristen direla adieraziz. Hala, Bermeo eta Mundakan irla horren jabetzaren gainean izandako borroka oroitzen da, irla Bermeora atxiki zen eguna ospatuz.

Beste herri batzuetan **“KARMENAK”** ospatzen dira, esaterako Santurtzin. Kasu honetan, arrantzaleek porturaino ateratzen dute ama birjina, ontzi batean paseoan ateratzeko, eta, beste ontzi batzuez inguratuta, Abrako kaira eramaten dute. Bertan, eskaintza egiten zaie itsasoak eraman dituen marinelei. Lekeitiok Kaxarranka jaiarekin ospatzen ditu **“SAN PEDROAK”**, portuan dantza batekin hasiera eman eta ondoren Arrantzaleen Kofradiara joateko.



Izaro irla



## FESTA GUSTATZEN BAZAIZU...

Urte osoan, eta betez ere udan, kostaldea zeharkatzean jai herrikoi askoz gozatzeko aukera izango duzu. Jai tradizional nahiz gastronomiko horietan, beste bat gehiago izango zara.
Hona hemen batzuk:

### Otsaila/martxoa
Sardinaren ehorzketa, Portugaleten (Inauterien amaiera)
Mundakako Aratusteak

### Martxoa/apirila
Txakolinaren aurkezpena, Bakion
Kornite erromeria Serantes mendian (Pazko astelehena), Santurtzin

### Maiatza
Antxoaren Eguna, Ondarroan
Arrain azoka, Bermeon

### Ekaina
Kaxarranka eta Kilin-kala, Lekeition
Zapatu Azule, Ondarroan
San Pedro, Mundakan

### Uztaila
Giako Andre Maria, Portugaleten
Karmen jaiak, Santurtzin
Itsas prozesioa eta Kaxarranka dantza, Plentzian
Izaroko Irlako itsas erromeria, Bermeon
Sardinaren Eguna, Santurtzin
Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdia
Getxoko Nazioarteko Jazzaldia
“Kaleka”; Lekeitioko kale-antzerkiko nazioarteko jaialdia
Armintzako “Txapel Reggae” jaialdia
Madalenak Plentzian, Mutrikun, Bermeon, Mundakan, Elantxoben...
Dastatuarte Food & Art jaialdia, Gorlizen

### Abuztua
Portu zaharreko jaiak, Getxon
Portuko Andre Maria eta itsas prozesua, Zierbenan
Arrantzale Eguna, Ondarroan
Bermeoko Nazioarteko Folklore Jaialdia
Bermeoko Nazioarteko Musika Astea
San Roke jaiak, Portugaleten

### Iraila
Antzar Eguna, Lekeition
Arrantzale Eguna, Bermeon
Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdia
Inkestas Rock, Sopelan
Sopela Kosta Fest

### Urria
Itsaski Azoka, Zierbenan

### Azaroa
Santurtziko Nazioarteko Antzerki Jaialdia
Santa Katalina, Mundakan

# TRADIZIOAK,
## *gure nortasunaren ikur*



Madalenak (Bermeo)

Arrantzaleak, saregileak, kontserbagileak, bela, arraun edo surfeko kirolariak, gastronomiako profesionalak... guztiak ere Euskal Herria bezalako herri baten itsas fisonomiaren adierazgarri, itsasoari lotuta hasiera-hasieratik.







## Haizea lagun

Bizkaian afizio handia dago nabigazioarekin lotutako jarduera nautikoetan. Belan, bere modalitate guztietan, geroz eta partaide eta jarraitzaile gehiago daude. Ondorioz, sarritan ikus daiteke zerumuga haizearen aurka borrokan ari diren koloretako belaz apainduta. Euskadiko Kirol Portuak egindako lan garrantzitsuari esker, bela publiko guztiarengana hurbildu da.

**Bermeo, Lekeitio, Ondarroa** eta **Getxoko** kirol-portuak garrantzitsuak dira. Azken horrek, gainera, itsas bidaietarako kai bat ere badu.

Estropaden egutegiak aldatu egiten dira urtean-urtean. Beraz, hobe duzu informazioa bildu, data eta ordutegi zehatzak jakiteko.



## Arraunean



Trainerua



*Jarduera hau hemen*

# PASIOA DA SURFA



Gaur egun, munduko leku guztietatik hona datorren surflari-kopurua izugarria da, baina ohitura hau euskal kostaldean 50eko hamarkadaren amaieran azaldu zen berez, Biarritzen. Kirol honetan, laguntzen duten hondartzak edukitzea ezinbestekoa da, eta Bizkaiak baditu. **Mundaka** da horren adibide, 4 metroko altuera eta 400 metroko luzera hartzen duten olatuekin, onenen artean kokatuz. **Bakion** ere ezaguna da bere olatuen kalitatea. Orokorrean, Kantauri itsasoa eskuzabala da surflariekin. Batzuk "World Class" kategoria dute, eta, hala, urtero zale ugari hurreratzen dira beren taulekin uretan murgiltzera. Zaletasun horri esker, hainbat txapelketa antolatu dira, besteak beste Punta Galea Challenge, Getxoko olatu handiaren surf-txapelketa edo **Sopelakoa**, munduko zirkuituan sartzen dena.

Hondartza hauetan herritar oro egon daiteke, eta surf egokitua praktikatzeko aukera ere badago.

Beste modalitate batzuk praktikatzeko (piraguismoa, paddle surfa, kayaka...), informatu eta anima zaitez:

**AKTIBA Euskadiko Turismo Aktibo, Abentura eta Natur jardueren Enpresen Elkartea**
www.aktiba.eus

**https://turismoa.euskadi.eus/eu/surf-euskadi/**




*Behatu*

# ZETAZEOAK

## Itsaso guztia *baranda batetik*

Kostaldeko hainbat tokitatik zetazeoak ikustea uste baino errazagoa da. Santurtzin, zehazki, 10 orduko irteerak egiten dira izurdeak, pilota-izurde hegaluzeak eta bestelako zetazeoak ikusteko (esaterako zere arrunta, munduan handienetakoa den balea-mota). Bermeo ere erreferentzia-puntu garrantzitsua da, kaxaloteak, orkak eta Cuvier baleak ikusteko aukera ematen duten irteerak antolatzen baititu. Irteera horietan, izurdeak, pilota-izurde hegaluzeak eta zereak ere ikus daitezke.

**www.hegaluze.com**
**www.verballenas.com**







A GOOD IDEA!



# BIRDING
## Txoria txori

Urdaibai bisitatzea paisaia natural batetara hurbiltzea da. Aski da prismatiko batzuk edukitzea hegazti ugari ikusi ahal izateko. Ingurua hobeto ezagutzeko, **Urdaibai Bird Center bisitatzea gomendatzen dizugu**, Gautegiz-Arteagan. Ikerketa eta dibulgazioko zentro honek hegaztiak eta beren habitatak aztertzen ditu, fauna eta, oro har, natura babesteko modurik onena deskubritzeko. Zentro honetako behatokian urtero Urdaibaitik pasatzen diren 200 espezie baino gehiagoren urratsak jarraitu ditzakezu.

Udazkenero eta neguro, Getxoko **Abra** ibaia hegazti migratzaileen aterpe gustukoenetakoa bihurtzen da. **Santurtzitik** itsasontzi-irteerak antolatzen dira hegaztiok ikusteko.

**www.birdcenter.org**



# MENDI-IBILIAK

## itsasoa gidari

*Mendi-ibiliak egitea oso gomendagarria da. Gainera Bizkaiko kostaldean ibiltzen bazara, itsasertzetik doazen paisaia ikaragarriak ikusiko dizugu, lurralde honetako historia eta ondare kultural eta naturala deskubritu ahala.*

Elantxobe





Aukeratu **Urdaibai ingurua** ondo zaindutako sistemez gozatzeko: artadiak, Oka ibaia, Mundakako itsasadarra, eta hondartza eta itsaslabarrez osatutako kostaldea, Izaro irla zelatariak zainduta.



Ondarroa

Bizkaiari itzulia ematen dion **GR123** pistak kostaldetik pasatzen den zati bat dauka. Bertan, Lea-Artibaiko pasaia ederrak ikus daitezke. Ispastertik sartu eta Lekeitio, Mendexa, Berriatua eta Ondarroatik (besteak beste) pasatzen da, barrualdera biratzeko.

**GR 123**
**BIZKAIARI ITZULIA**
**19 etapa /408 km**



Bermeo

Badago beste ibilbide interesgarri bat ere, Oionetik (Arabako Errioxa) irten eta Bermeon amaitzen dena, Lekeitio eta Ondarroara irten ostean, Gernikatik; bere jatorriagatik eta helmugagatik darama **Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea** izena.

GR 38

**GR 38**
**GR38-1**
**GR38-2**

GR 38-1
GR 38-2

**ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA**
**9 etapa /167 km**



Lekeitio

**Lea Ibilbidea** ere oso interesgarria da. Lea ibaia Oiz mendian jaiotzen da, eta Marierrota izeneko itsas errota zaharreko paduraraino doa. Ibilbide horretan, Lea ibaiaren ondoan, historiaz betetako parajeez gozatzeko aukera izango duzu.

**GR 38-3**
**LEA IBILBIDEA**







**Itsaslurreko Bide Berdeak** (Kobaroneko trenbide zaharra) Arena hondartza Pobeñarekin lotzen du, itsaslabar izugarriak inguratuz.

**Donejakue Bideko** ibilbideetako batek kostalde bizkaitarra zeharkatzen du. Bertatik abiatuz gero, Urdaibaiko Erreserbara sartuko zara, betebetean. Bilbon, Santiago Katedralak emango dizu ongi-etorria, Portugaleten Bizkaia Zubira igo ahalko zara edo Balmasedan Muzako zubia gurutzatu.

**www.turismo.euskadi.eus**

A GOOD IDEA!

# BIZIKLETA-IBILIAK

## ...gurpildun turismoa

***Kostaldea bizikletaz zeharkatu nahi baduzu, Busturialdea-Urdaibai eta haren inguruetan 18 ibilbide dituzu, maila guztietarako prestatuta. Hiru profil bereiz daitezke: BTT, errepideko ibilbideak eta familian egiteko ibilbideak.***
***Gainera, Bizkaia osoan bizikleta-martxa ugari daude. Informa zaitez turismo-bulegoetan eta apuntatu datak.***



**https://turismoa.euskadi.eus/eu/btt/**
**https://turismourdaibai.com/eu/urdaibai-bizikletan/**




# Itsasoko fruituen *kontserbak*



A GOOD IDEA!

*Eraman zure etxera itsasoko zaporea, ondoren zure sendiarekin gozatzeko. Txakolin on bat hartuz gero, arrakasta segurua.*

0 km

Azoka

**Bermeon** beti izan da ospetsua bere arrainaren eta kontserben kalitatea, batez ere hegaluze, atun eta antxoarena. Arrain-kontserben munduan, **Ondarroa** da Bizkaiko kostaldeko beste erreferentzietako bat. Baina herrian bertan dastatzea gustagarria den arren, etxera itzulitakoan kontserbak probatzea ere derrigorra da. Ez ahaztu Bizkaiko kontserben espezialitate bat gatzetan jarritako antxoa dela.


Bermeo

A GOOD IDEA!

*Bermeon badago beste kontserba-etxe bat, Zallo, 1926tik hegaluzea eta Kantauriko antxoa prestatzen dituena, eskuz. Bere lantegiak dastatze-saioak eta bisita gidatuak eskaintzen ditu. Halaber, kontserba-produktu eta arrain freskorik onenez gozatzeko aukera ematen du.*





Campos kontserba-etxea 1920an sortu zen, bi familia aitzindarik Bermeon sektore honetan beren ibilbideari hasiera eman ziotenean. Hala, erreferentziazko enpresa bihurtu dira kontserben munduan.

Ortiz kontserbak Ondarroan daude. Kontserbak eskuz prestatzen eta arrantza-arte tradizionalak errespetatzen aitzindaria izan da lantegi hau. Badaude beste kontserba-etxe ezagun batzuk ere, hala nola Garavilla, Serrats, Arroyabe, Cusumano, Urdaibai, Olasagasti...






# TXAKOLINA
## *Kostaldeko ardoa*

Bakio





A GOOD IDEA!

***Hain berezia denez, hemendik kanpora ez du intentsitate bera izango. Jatorri deituren mailan sartuta dago txakolina. Gaur egun, ardoaren nazioarteko merkatu berritzaileek txakolinaren berezitasuna aitortzen dute. Uribe eta Urdaibai eskualdeetan, besteak beste, paseo turistikoak gastronomiarekin eta enologiarekin uztartzen dituzten esperientzia entretenigarriak aurkituko dituzu. Aho bete plazer!***



# BISITATU BODEGA BAT ETA EROSI BERTAN



Butroi bodega (Gatika)

Bodega batean sartzeak zentzumen guztiak pizten dituen esperientzia bat bizitzeko aukera ematen dizu.

Bodega askok ematen dute bisitak eta dastatze-saioak egiteko aukera. Gainera, horietako batzuetan menu aparta eskaintzen dute. Gogoan hartu du: **Itsasmendi** Gernika-Lumon, **Berroja** Muxikan, **Amunategi** Busturian, **Doniene Gorrondona** Bakion, **Talleri Berria** Morgan, **Gorka Izagirre** Larrabetzun, **Magalarte** Zamudio eta Lezaman, **Mendibile** Leioan, **Uriarte** Gamiz-Fikan, **Gure ahaleginak** Urduñan, **Virgen de Lorea** Zallan eta **Axpe** Markina-Xemeinen.

Deskargatu Bizkaiko txakolinaren liburuxka



## TXAKOLINAREN MUSEOA
# TXAKOLINGUNEA

Ikus-entzuneko baliabide interaktiboen bidez, **Bakioko Txakolinguneak** txakolina egiteko prozesuaren eta ezaugarrien berri ematen digu. Txakolinaren historia ez ezik, azken urteetan jasan duen eraldaketa-prozesua ezagutuko dugu. Eraldaketa horretan sartu dira bodegak ere. Hala, balio tradizionalei eutsi arren, aurrerapen teknologikoak sartu dituzte artisautzako ekoizpen-prozesuetan, ahaleginaren ahaleginez merezitako aitorpena eta ospea lortuz.

Nahiz eta txakolin zuria den ezagunena eta ekoizpen handiena duena, badaude txakolin beltza edo txakolin gorria egiten duten bodegak ere. Azken hori oso berezia delako nabarmentzen da, nahiz eta ekoizpen baxuagoa duen.



A GOOD IDEA!

***Aprobetxatu museoan zaudela txakolina dastatzeko, ibilbide gidatu interesgarriaren ostean. Erreserba egiteko: txakolingunea@bizkaia.es. edo 94 602 85 13.***



# Mokadu apartak
## *kulturaren parte*



Bakailaoa pil-pil erara

Txapelketa gastronomikoak, erakusketak eta produktuak dastatzeko saioak… sukaldaritzako topaketa asko daude Bizkaiko kostaldeko herrietan. Horietako askotan, 0 kilometroko produktua izaten da protagonista.

Uztailean, Getxoko **Aixerrota** landetan lehia bizia egoten da **paellarik** onena nork egingo. Karmen jaietako lehen egunean. **Santurtzin, Sardinaren Eguna** ospatzen da. Bertan, sardinak banatzen dira hurreratzen direnen artean. **Ondarroan,** bestalde, maiatzean ospatzen da **Antxoa Eguna**. **Gernika-Lumon**, udan, **Piper Eguna** ospatzen da.

**Arrain Azoka** da Euskadiko arrain-azokarik garrantzitsuena. Maiatzean ospatzen da, Bermeon.

Orain, gozatzera.



Aixerrota







Kostako herrietan itsas ondoan jesarri eta txingarretan egindako arrainez osatutako menu bat dastatzea plan ezin hobea da. Edozein portutan aurkituko duzu *erretegi* bat, sardina, bisigu edo zapo usaina zuganaino barreiatuko duena. Proba ezazu! Horien inguruan sortzen den giroak, gainera, menuak modu berezian dastatzeko aukera emango dizu. Arrain on bat jateko modurik onena da: puntu-puntuan. Eta txakolinaren laguntzaz, hainbat hobeto.



Sardinak

## Pintxoak, itsasoko mokaduak

Nanogastronomiaren afizioari eta horrekin lotutako harreman sozialei esker, Bizkaiko hainbat udalerritan daude *Pintxo* Ibilbideak. Gernika-Lumo, Portugalete, Santurtzi, eta Bilbon ibilbideak dituzte markatuta, pintxoez gozatzeko.

Ezingo diozu tentazioari eutsi.

A GOOD IDEA!







# ITSASOKO JAKI tipikoak

Euskadiko arrantza-portu ugaritan dagoen jarduera sendoari esker, era guztietako itsas produktuak aurkitu ditzakegu sukaldeetan. Oraindik ez baduzu dastatu arrantzatu berri den produktu bat, aprobetxatu. Itsasoko zaporeak ez du parekorik. Zatozen unearen araberakoa izango da dastatuko duzun zaporea, baina ez kezkatu, edozein aldaerak dauka bere puntua eta, gainera, prestatzeko modua izugarri aldatu daiteke. Baietz harritu.



## ANTXOAK

Antxoak prestatzeko moduak asko dira: **arrautza eta irinetan pasatuta**, **lapikoan** olioarekin eta piperminarekin, modurik sinpleenetan, edo **piperrez** beteta edo **papillot** erara, modu konplikatuagoetan. Edozein modutan, hatzak miazkatzen amaituko duzu.



## SARDINA ERREAK

Txingarrak, gatz lodia eta produktu ona... Ez dago hain erraza eta aldi berean zaporetsua den errezeta askorik. Horietako bat da **sardina erreena.** Arrantza-portu bat, erretegi bat... Kontua leku aproposean egotea da.



## MARMITAKOA



Arrantzaleek itsasontzietan prestatzen zuten errezetatik datorren platera. Prestatzeko erabiltzen zen lapikotik dator izena (marmita). **Patatak** eta **hegaluzea** oinarri hartuta, garrantzitsua da zukutsu geratzea eta gisatua pixka bat pikante egotea. Izugarri gustatuko zaizu.

## BAKAILAOA BIZKAITAR ERARA

Euskal sukaldaritza tradizionaleko jaki tipikoa da. Piperretan oinarritako saltsan datza sekretuak. Kalitatezko **bakailaoa**, txakolin ona eta ogia... Ez da besterik behar.



Aldaera **Club Ranero** deritzon aldaeran, bestalde, bakailaoari barazkiak gehitzen zaizkio labera sartzean.



## LEGATZA ONDARROAKO ERARA

Zure errezetan beste produktu batzuk nahastu nahi ez badituzu eta arrainak arrain zaporea izatea nahi baduzu, **legatza Ondarroako erara** dastatu behar duzu. Puska handi bat izatea funtsezkoa da, bigun eta zukutsu gera dadin, zure ahoaren gozamenerako. Gozatu!



## TXIPIROIAK

Euskal gastronomiako klasiko honek hainbat aldaera onartzen du: **tipulaztatuta, bere tintan, plantxan**...
Zure neurrikoa aurkitu baietz!

## BAKAILAOA PIL-PIL ERARA

Lehenik eta behin, pil-pil izenaren jatorria ezagutu behar da: **bakailaoaren** saltsak olioarekin uztartzean egiten duen zaratatik dator. Apurka-apurka prestatu beharreko platera da. Berakatza, pipermina eta lapikoaren astinduak dira jateko garrantzitsu honen osagai nagusiak.



A GOOD IDEA!

***Kostaldeko zaporerik gozoena dastatu, 0 kilometroko produktuen eskutik. Freskotasuna eta kalitatea ziurtatuta izango dituzu. Gainera, bertako ekoizpenari lagunduko diozu.***

0km

## Ausartu zu ere!

Euskal errezeta tradizional guztietan aurkituko dituzu gaur egunera iritsi diren itsas errezetak.

Produktu ona edukitzea funtsezkoa da. Hemen, kostaldeko edo Bilboko azokek genero ezin hobea dute. Noski, lehenengo profesionalen eskutik dastatu eta, gero, ausartu zu zeu errezeta hobetzera.



A Stunning Coast line

# ESPERIENTZIAK SAREAN

## Erreserbatu zure esperientzia



*Proposamenak asko dira eta zure bidaian horiek deskubritzen joatea zirraragarria da, baina errazago jarri nahi dizugu: ondo baino hobeto egituratutako eta programatutako esperientzia batzuk hautatu ditugu, zure gozamenean laguntzeko. Hala, Bizkaiko kostaldearen xarma bertatik bertara ezagutu ahalko duzu.*

**https://reservabilbaobizkaia.eus/eu/255-kostaldea**

### Lekeitio, itsas herria

Bisita gidatua Santa Katalinako itsasargira eta bisita audiogidatua Lekeitioko alde zaharrera eta portura.





### Paseoa piraguan Getxoko kostatik

Paseo bat kayaken Getxoko kostatik, Bilboko itsasadarraren ahotik doazen ur bareak ezagutzeko.

### Zeharkaldia Abratik belaontzian

Bilboko itsasadarraren ahotik doan zeharkaldia egin ahalko duzu, belaontzian.





### Bilbo Classic and Modern in Boat

Bisitatu Hiribilduko monumenturik garrantzitsuenak eta murgildu Bilbo Handian. Nabigatu Bilboko itsasadarretik Alde Zaharreraino.



### Egun osoko ibilaldia belaontzian Getxotik

Pasatu egun oso bat nabigatzen: aingura bota, bainu bat hartu eta askoz gehiago.





### Flyscha Bizkaian

Mapa eta ibilbideetan agertzen ez diren bazter guztiak deskubrituko dituzu. Gure kostaldearen historia naturalari buruzko liburu irekia da.

### Tourra: "Juego de Tronos"

Juego de Tronos telesailaren tour honetan, telebistako telesail ospetsuko lekurik ikusgarrienez gozatzeko aukera izango duzu. Lekuen eta errodajearen zehaztasun guztiak ezagutuko dituzu. Bisitatu Barrika, Butroe eta Gaztelugatxe.



# TOPBIZKAIAKOSTA

A Stunning Coast line

TOP izena daukate, onenetan onenak direlako, bisitatu, dastatu, erosi, gozatu... beharrekoak. Hemen zaudenean ezinbestean bizi behar diren esperientziak dira.  Apuntatu zure programan eta, etxera itzultzean, kontatu lagunei.

BILBAO BIZKAIA

## BIZKAIA ZUBIA

Unescok Gizadiaren Ondare aitortu zuen zubi honek Itsasadarraren bi aldeak batzen ditu eta, era berean, Bizkaiko leherketa industriala izan zenaren ikurra da.
Ontzitxoan edo oinez zeharkatu dezakezu (oinezko pasabidetik, goiko aldean).



## URDAIBAI

### Biosferaren Erreserba

Unescok Biosferaren Erreserba izendatu zuen paraje naturala. Europarc sare europarraren parte da. Euskadiko turismo jasangarriko jomugetako bat da. Eguneko hainbat unetan ikusten baduzu, itsasbeherak eta itsasgorak eskaintzen dituzten pasaia desberdinak antzeman ahal izango dituzu.







## GAZTELUGATXE

Paregabea eta ikusgarria... halakoa da Bizkaiko kostaldean dagoen paraje eder hau, Bermeo eta Bakio artean. Gailurrean, San Juan ermita dago,



## SANTA KATALINAKO ITSASARGIA

Lekeitioko Santa Katalinako itsasargian **Nabigazioko Teknologiaren Interpretazio Zentroa** dago. Bertan, arrantzaleek itsas goran zituzten baldintzak ikusi ahalko dituzu.



## BIZKAIKO FLYSCHA

Bakio, Lemoiz, Gorliz, Plentzia, Barrika, Sopela eta Getxotik, historia naturalaren liburu bateko orri ireki hauek kostalde bizkaitarra marrazten dute.



A Stunning Coast line

# BIZKAIA COAST MAP




H auxe da Bilbao Bizkaia. Itsasoa eta mendia, lurralde historikoa inguratzen. Ondoan, Gipuzkoa eta Araba, hirurek batera Euskal Autonomia Erkidegoa osatzeko.

## KOSTALDEKO LEKU INTERESGARRIAK

1. Guggenheim Bilbao Museoa
2. Itsasmuseum Bilbao
3. Arrantzaleen Museoa
4. Itsas Ondarearen Museoa
5. Itsasoaren Interpretazio Zentroa
6. Butroeko Plentzia Museoa
7. Rialia, Industriaren Museoa
8. Marierrota
9. Bizkaia Zubia
10. Santa Katalinako Itsasargia
11. Gaztelugatxe
12. Agurtza itsasontzia, Arrantzaren Interpretazio Zentroa
13. Santurtzi Itsasoa Interpretazio Zentroa
14. Txakolingunea

i Turismo-bulegoak

# BIDAIA JASANGARRIAGO ETA ARDURATSUAGO BATEN ALDE

Erraz-erreza da: bisitatu, gozatu eta partekatu modu arduratsuan. Zure bidaia gozamenaz haragoko esperientzia bihurtuko da ingurua eta tokiko jasangarritasuna zaintzen laguntzen baduzu.

- **Bisitatu kostaldea denboraldi altutik kanpo: Bizkaia urte osoan dago zabalik.**
- **Erabili garraio publikoa: ez duzu zertan aparkalekua bilatzen ibili eta $CO_2$ isuriak eta karbono-aztarna murrizten lagunduko duzu.**
- **Erabili arduraz espazioak.**
- **Erabili ingurumena errespetatzen duten ontziak: tupper, kantinplora... berrerabilgarriak.**
- **Erabili edukiontziak zure bisitan sortutako zaborra botatzeko.**

Errefusa, oro har · Organikoa · Beira · Plastikoak eta ontzi metalikoak · Papera

- **Parte hartu herrietako tradizio eta jaietan.**
- **Hitz egin euskaraz.**
- **Dastatu bertoko eta 0 km-ko produktuak.**
- **Erosi bertako produktuak.**

etikoa Turismo Euskadi



# INFO PRAKTIKOA

**BILBO TURISMOA**
www.bilbaoturismo.net

**BIZKAIA TURISMOA**
www.visitbiscay.eus

**EUSKADI TURISMOA**
www.turismo.euskadi.eus

## TURISMO BULEGOAK

### BILBO

BILBO TURISMOA
· Plaza Biribila, 1 Terminus eraikina · 944 795 760
· Mazarredo zumarkalea 66 (Guggenheim-en ondoan Bilbo)
· Aireportua 944 031 444

### BIZKAIA

**BAKIO**
946 193 395 · www.bakio.eus

**BALMASEDA - ENKARTUR**
946 802 976 · www.visitenkarterri.com

**BARAKALDO BEC (Bilbao Exhibition Centre)**
944 995 821 · www.visitbarakaldo.eus
(denboraldi eta une zehatzetan irekita)

**BERMEO**
946 179 154 · www.bizibermeo.eus

**DURANGO**
946 033 938 · www.turismodurango.net

**ELORRIO**
946 820 164 · www.visitelorrio.com

**GERNIKA-LUMO**
946 255 892 · www.gernika-lumo.eus

**GETXO**
944 910 800 · www.getxo.eus/turismo
Informazio Turistikoko Puntua
Martxotik abendura · 615 75 62 90

**GORLIZ**
946 774 348 · www.visitgorliz.eus

**KARRANTZA-HARANA**
946 806 928 · www.karrantza.org

**LEKEITIO**
946 844 017 · www.lekeitioturismo.eus

**MUNDAKA**
946 177 201 · www.mundakaturismo.com

**ONDARROA**
946 831 951 · www.ondarroa.eus

**URDUÑA**
945 384 384 · www.ordunaturismo.com

**OROZKO**
946 122 695 · www.gorbeiaeuskadi.com

**PLENTZIA**
946 774 199 · www.visitplentzia.com

**PORTUGALETE**
944 729 314 · www.portugalete.org

**SANTURTZI**
944 839 494 · www.visitsanturtzi.eus

**SOPELA**
944 065 519 · https://turismo.sopela.eus/

**SOPUERTA**
946 104 028 · www.visitenkarterri.com

**TURTZIOZ**
946 560 079 · www.turtzioz.org

**ZIERBENA (Arena)**
662 547 468 · www.zierbena.net
(denboraldi eta une zehatzetan irekita)

## GARRAIOA

**AIREPORTUA**
Bilbo-Loiu · 913 211 000 (AENA)
www.aena.es/es/bilbao.html

**ITSAS BIDAIAK ETA FERRYA**
Bilbo-Portsmouth ferrya 902 108 147
www.brittany-ferries.es

**TRENAK**
RENFE. Indalecio Prieto Abandoko geltokia
Plaza Biribila 2
Bezeroaren arretarako telefonoa ADIF 912 432 343
Bezeroaren arretarako telefonoa RENFE Bilbao 944 879 222
Bezeroaren arretarako telefonoa RENFE 912 320 320
www.renfe.com / www.adif.es

EUSKOTREN
Bezeroaren arretarako telefonoa 944 333 333
www.euskotren.eus · 944 019 900

FEVE. La Concordia geltokia
Bailen kalea 2.·
Bezeroaren arretarako telefonoa ADIF 912 432 343
Bezeroaren arretarako telefonoa RENFE Bilbao 944 879 222
Bezeroaren arretarako telefonoa RENFE 912 320 320
www.renfe.com / www.adif.es

**AUTOBUSAK**
Bilbao Intermodal (Autobus geltokia)
Gurtubai 1 · 944 395 077 · www.bilbaointermodal.eus

Bilbobus (Udal autobusak)
946 855 000 / 944 790 981
www.bilbao.eus/bilbobus

Bizkaibus (autobusak, probintzia eta aireportua)
946 125 555 · www.bizkaia.eus

**BILBOKO METROA**
946 855 000 · www.metrobilbao.eus

**TRANBIA**
944 333 333 · www.euskotren.eus

**TAXIAK**
Bilboko Irrati Taxia
944 448 888 · www.taxibilbao.com

Tele Taxia
944 102 121 · www.teletaxibilbao.com

Nerbioi Irrati Taxia
944 269 026 · www.radiotaxinervion.com

Getxon:

BIZKAITAXI
www.bizkaitaxi.eus / 94 491 53 53

GETXOBIZI
www.nextbike.es / 900 29 35 51

**BIZIKLETAK MAILEGATZEKO ZERBITZUA**
Bilbaobizi
946 564 905 · www.bilbaobizi.bilbao.eus

## OROKORRA

**LARRIALDIAK** 112
**INFORMAZIO OROKORRA** 010
(Bilbo barnean deiak egiteko)
944 010 010 (Bilbo kanpotik deiak egiteko)

**TALDE KONTSULARRAREN BULEGOA**
944 706 426

**BILBOKO UDALEKO HERRITARRENTZAKO ARRETA**
944 204 200

**ERREPIDEEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA**
011

**GALDUTAKO OBJEKTUAK**
944 204 981 / 944 205 000

## OSTATUAK

**NEKATUR/NEKAZALTURISMOAK**
943 327 090 · www.nekatur.net
946 870 402 (Ihobe) · www.ekoetxea.eus

**OSTALARITZA ELKARTEA**
www.destinobilbao.com

**XARMA, Euskadiko Ostatu Xarmagarrien Elkartea**
www.xarmahotels.com

## BILBOKO MUSEOAK

**GUGGENHEIM BILBAO**
www.guggenheim-bilbao.eus · 944 359 000

**ARTE EDERREN MUSEOA**
www.bilbaomuseoa.eus · 944 396 137

**ELEIZ MUSEOA**
www.eleizmuseoa.com · 944 320 125

**ITSASMUSEUM BILBAO**
www.itsasmuseum.eusm · 946 085 500

**ASTE SANTUKO PASIO IRUDIEN MUSEOA**
www.museodepasosbilbao.com · 944 150 433

**BILBOKO ZEZEN MUSEOA**
www.bilbao.bmftoros.com · 944 448 698

**EUSKAL MUSEOA**
www.euskalmuseoa.eus · 944 155 423

**BILBOKO BERREGINEN MUSEOA**
www.bilbokoberreginenmuseoa.eus/ess · 946 790 255

**ATHLETIC CLUB MUSEOA**
sanmames.athletic-club.eus/museo · 944 661 100

**EUSKARAREN ETXEA**
www.azkuefundazioa.eus · 944 028 081

**ARKEOLOGI MUSEOA**
www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 944 040 990

## BIZKAIKO MUSEOAK

### KOSTALDEAN

**ARRANTZALEEN MUSEOA**
Bermeo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 881 171

**BUTROIKO PLENTZIA MUSEOA**
Plentzia · www.museoplentzia.org· 94 677 37 25

**RIALIA INDUSTRIAREN MUSEOA**
Portugalete · www.portugalete.org/es-ES/Rialia · 944 729 200

**SANTURTZI ITSAS MUSEOA**
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494

**AGURTZA ITSASONTZI-MUSEOA**
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494

**BIZKAIA ZUBIA**
Areeta (Getxo) /Portugalete
www.puente-colgante.com · 944 801 012

**PUNTA BEGOÑA GALERIAK**
Getxo - www.puntabegonagetxo.eus

**URDAIBAI BIRD CENTER**
Gautegiz-Arteaga · www.birdcenter.org · 699 839 202

**EKOETXEA URDAIBAI**
Busturia · www.ekoetxea.eus · 946 051 275

**TXAKOLINGUNEA**
Bakio ·bizkaikoa.bizkaia.eus/txakolingunea · 946 028 513

**SANTA KATALINAKO ITSASARGIA**
Lekeitio · www.lekeitioturismo.eus/es · 946 844 017

### BARNEALDEAN

**SIMÓN BOLÍVAR MUSEOA**
Ziortza-Bolibar · www.simonbolivarmuseoa.com · 946 164 114

**DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA**
Durango · www.durangomuseoa.eus · 946 030 020

**ENKARTERRI FABRIKA-MUSEOA**
Sopuerta · www.enkarterrimuseoa.eus · 946 504 488

**POBAL BURDINOLA**
Muskiz · bizkaikoa.bizkaia.eus · 629 271 516

**EUSKAL HERRIA MUSEOA**
Gernika-Lumo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 255 451

**GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA**
Gernika-Lumo · www.museodelapaz.org · 946 270 213

**GERNIKAKO BATZAR ETXEA**
Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.eus · 946 270 200

**BASONDO**
Urdaibaiko basa faunaren aterpea, Kortezubi
www.basondo.com · 946 254 436

**MEDIZINAREN ETA ZIENTZIEN HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA, "JOSE LUIS GOTI"**
Leioa · www.ehu.eus · 946 012 000

**OROZKOKO MUSEOA**
Orozko · www.orozkomuseoa.eus · 946 339 823

**EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA**
Gallarta · www.meatzaldea.eus · 946 363 682

**BALMASEDAKO HISTORIA MUSEOA**
Balmaseda · www.visitenkarterri.com · 946 802 976




**ENKARTERRI FABRIKA MUSEOA**
Balmaseda · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 800 778

**VALENTÍN DE BERRIOTXOA MUSEOA**
Elorrio · www.visitelorrio.com · 946 820 164

**LOIZAGA DORREA. ANTZINAKO AUTOEN ETA AUTO KLASIKOEN MUSEOA**
Galdames · www.torreloizaga.com · 672 248 759

**BURDIN HESIAREN OROIMEN MUSEOA**
Berango · www.cinturondehierro.eus · 946 682 143

**ANTZASTI MUSEOA**
Dima · Artaun Auzoa, 35, 48141,
www.antzasti.eus · 628 32 22 75

**ORDUÑA HIRIA MUSEOA**
Urduña · www.orduñahiria.org · 635 751436

**KARPIN FAUNA HARRERA-ZENTROA FAUNA BASATIARENTZAT.**
Karrantza
www.visitenkarterri.com/ver-hacer/museos/karpin-fauna.html
946 107 066

**HONTZA MUSEOA FUNDAZIOA.**
Mañaria · www.hontzamuseoa.eus · 946 216 555

**IZENADUBA BASOA**
Euskal parke mitologikoa. Olentzeroren etxea
Mungia · Landetxo Goikoa Baserria
www.izenaduba.com · 946 740 061

**DOLOMITAK FABRIKA MUSEOA**
Karrantza · visitenkarterri.com · 946 806 928

**KONTZEJU ZAHARRA INTERPRETAZIO ZENTROA**
Markina Xemein · https://www.leaartibaiturismo.com/eu/zer-egin/detailea/kontzeju-zaharra · 618 595 593

**MUÑATONESKO GAZTELUA**
Muskiz · visitenkarterri.com · 629 271 516

## ESPAZIO NATURALAK

**URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBA**
www.urdaibai.eus · Tel: 94 403 23 60
946 870 402 (Ihobe) · www.ekoetxea.eus

**GORBEIA PARKE NATURALA**
946 122 695
www.gorbeiaeuskadi.com

**URKIOLAKO PARKE NATURALA**
946 814 155 · www.urkiola.net

**ARMAÑÓNGO PARKE NATURALA**
946 560 079 · www.visitenkarterri.com

**SANTIMAMIÑEKO KOBAZULOA**
http://www.santimamiñe.com

**OMAKO BASOA**
www.bosquedeoma.com

OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE

bilbaoturismo.net · visitbiscay.eus

EUSKADI BASQUE COUNTRY

BILBAO BIZKAIA be basque

